


ELGERA



BERBETAN: Lucia Sanchez **ARGAZKIAK:** Euskararen eguna
ERREPORTAJEA: Nire apostua, ekintzailtza

AURKIBIDEA

- 3 Artikulua, *Eusle talde berria*
- 4 Berbetan, *Lucia Sanchezekin*
- 6 Artikulua, *Arkade makina*
- 8 Kronika, *Lemoizko barnetegia*
- 10 Inkesta, *Euskal musika*
- 11 Artikulua, *Gure nagusien bakardadea*
- 12 Erreportajea, *Ekintzailletza*
- 14 Argazkiak, *Euskararen eguna*
- 16 Denborapasak
- 19 Bertsoak
- 20 Artikulua, *Irrati saioa*
- 22 Literatur Txokoa, *Sex-sua*
- 24 Artikulua, *Berbakakao*
- 26 Denbora pasen emaitzak



ELGERA

Argitaratzailea: Elgera Lantaldea

Deustuko Ikastola IPI, Elacuria-Zurbaran BHI, Arangoiti Ikastetxea, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, La Salle Bilbao HLBIP, Errekaldeberri BHI, San Andrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, Berbaizu Euskara Elkarte eta PREST! aldizkaria.

Imprimategia: Antza · **Ale kopurua:** 2650 · **Webgunea:** <https://uriola.eus/prentsa/elgera/>

Eusle talde berria, ilusioz betea.

Aurten Rekaldeberri BHI Institutuan zorioneko gaude, Eusle taldea sortu baita. Dakigunez, EUSLE hizkuntza-murgiltze programa berria da eta bere helburua da Euskal Hezkuntza-sistemara etorri berri diren eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleei erantzun eraginkorra eta haien hezkuntza-premietara egokitua ematea hizkuntza- eta komunikazio-esparruari dagokionez, hezkuntza-inklusio arrakastatsua lortzeko. Horrek etorri berri diren ikasleei eskolako komunikazio-hizkuntza, euskara, eskuratzeko prozesua erraztuko die. Euskaran, oinarrizko komunikazio-gaitasunera iristea (A2) izanik azken helburua.

Rekaldeberrin 10 ikasleko taldea dugu eta hainbat jatorritakoak dira: Nikaragua, Kolonbia, Kuba, Maroko, Peru, Venezuela, Nepal eta estatuko beste erkidego batzuetakoak. laguztiak 2024ko udan etorritakoak dira eta, beraz, etorri berriak dira. Astero 10 ordu lantzen dituzte Eusle gelan eta, gainera, Eusle irakaslea euren erreferentzia gelan ere sartzen da zenbait ordutan.

Ekimen honetan hauek hartzen ditu kon-tuan: inklusiorako ikuspegia, aukera berdintasuna ziurtatzea, hizkuntza laguntza-tik harago joatea eta kulturartekotasuna.

Eusle ekimenaren alderdi nagusiak hauexek dira: hezkuntza-komunitate osoaren konpromisoa, harreraren garrantzia, ibilbide inklusiboa, komunikazio-gaitasuna lortzea, Eusle- eta murgiltze-gelak ikasleen beharriari erantzutea, Jarduera Plan Pertsonalizatua (JPP), Ama-hizkuntzaren garrantzia eta familiak ikaskuntza-prozesuan duen inplikazioa eta erantzukizuna.

Programa honen bidez beste helburu batzuk ere jorratzen dira, ikasle etorri berrien eta haien familien premietara egokitutako harrera on bat egitea, hezkuntza-laguntza espezifikoa ematea, hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunen garapena erraztea, Kalitatezko arreta pertsonalizatua ematea eta emozio-, harreman- gizarteratze- eta eskola-alderdiei erantzutea, besteak beste.



“Gehienek uste dute kirol hau arriskutsua dela, baina guztiz kontrakoa da.”

Lucia Sanchez 15 urteko neska Bilbotarra da, inoiz ez zuena pentsatuko Europako beste leku batzuetara bidaiatuko zuela, edo Espainiako irabazlea izango zela. Bere kirola gero eta garrantzitsuagoa ari da bihurtzen, borroka libre olinpikoa.

Nola hasi zinen borroka olinpikoa egiten?

Istorio bitxia da. Nik ez nuen inoiz entzun borroka olinpikoari buruzko ezer, eta borroka egiten hasi baino lehen, patinajea egiten nuen. Hala ere, zortzi urterekin nire lehengusua borrokan saiatzeko esan zidan, berak borroka praktikatzen baitzuen eta asko gus-tatzen baitzitzaion. Zorionez, kasu egin nion; kirola izugarri gustatu zitzaidan eta orain nire bizitzako gauza garrantzitsuenetako bat da.

Non egiten duzu?

Ni Cafe del Norte klubean hasi nintzen, eta bertan jarraitzen dut, Txurdinagako poli-kiroldegian. Hala ere, orain, 2024ko denboraldian, Espainako selekzioan jokatzeko hasi naiz Europako txapelketetan, eta 2022. urtetik baita estatu mailako txapelketetan ere, Euskal Herriko selekzioarekin.

Nolakoak dira zure entrenamenduak?

Hiru edo lau entrenamendu ditut astero, bi ordu entrenamendu bakoitzeko. Batzuetan, txapelketa bat baino lehen, entrenamendu gehiago ditut eta gogorragoak izaten dira. Entrenamenduetan beti berotzen dugu lehenengo, eta ondoren teknika praktikatzen dugu edo fisikoa egiten dugu. Fisikoa egiten dugunean zirkuitoak egiten ditugu, eta normalean entrenamenduen amaieran konbateak egiten ditugu gure artean.

Emakume asko aritzen da borroka olinpikoa?

Espainiar Estatuan, beste herrialde batzuetan baino askoz jende gutxiago aritzen da kirol honetan. Nire kluba mixtoa da, ez dagoelako bi klub desberdin egiteko pertsona nahikorik, baina gero eta neska gehiago daude kirol hau praktikatzen hasten direnak, eta gaur egun gehienak neskak gara. Adibidez nire taldean 20 gara, gehienak ni baino gazteagoak. Nire adinekoak 5 gara, haietako 4 neskak.

Gomendatuko zenioke inori kirol hau praktikatzea?

Bai. Gehienek uste dute kirol hau arriskutsua dela, baina guztiz kontrakoa da. Borroka izena entzutean pentsatzen dute kirolaren helburua bestea jotzea dela, baina teknika da garrantzi handiena duen atala. Beste edozein kirol bezain arriskutsua da, normala da lesioak edo bihurrituak izatea, baina ezer larririk ez. Gainera, lagun asko egin dezakezu, zure taldekoak edo beste leku batzuetakoak, kirol honek hainbat lekutara joateko aukera ematen baitu.

Lucia Sanchez



Baduzu formula sekreturik heldu nahi duzun lekura ailegatzeko?

Dagoen sekretu bakarra da zorrotz entrenatzea eta jokatzeko gogo bizia izatea. Entrenatzaileei entzutea ere oso garrantzitsua da, aholku oso onak eman ahal dizkizutelako. Baina, azkenean, inportanteena dena da egiten duzuna disfrutatzea.

Zein dira borroka olinpikoak eman dizkizun ikasbide edo esperientzia onenak?

Kirola praktikatzen egon naizen denboran, esperientzia on asko izan ditut, esaterako, Erumaniara joan nintzenean txapelketa batera, edo Espainako irabazlea izan nintzenean. Horrez gain, borroka olinpikoaren bidez lagun asko egin ditut eta bizitzarako ikaskizun asko eman dizkit. Pertsona askoren aurrean latsa ez izaten eta lasai egoten irakatsi dit, eta ahalegin handia egin eta gero helburuak lortu ahal ditugula ere ikasi dut.

Nola ikusten duzu zeure burua etorkizunean?

Hasieran, zaletasuna baino ez zen, eta ez nuen espero gehiagora iristea, baina serio hartzen hasi nintzenean eta ona nintzela ikusi nuenean, profesionalki borroka olinpikora dedikatu nahi nuela konturatu nintzen. Baina ez dut ikasketak uzteko asmorik, datorren

urtean humanitate zientzietako batxilergoa egitea da nire helburua. Etorkizunean olinpiadetara, Europako txapelketara eta munduko txapelketetara joatea dira nire helburu nagusiak, eta, ondoren, erretiratzean, entrenatzaile bihurtzea da nire ideia nagusia. Hala ere, gaur egun batzuetan ume txikiak entrenatzen ditut, nire entrenatzaileei lagunduz.

Nolakoak dira txapelketak?

Kategoriaren arabera gehiago edo gutxiago irauten dute, baina guztietan daude bi zati, eta 30 segunduko atsedena zatien artean. Lehenengo zatia irabaztean ez da beharrezkoa hurrengoa jokatzeko.

Borroka olinpikoa kontaktu kirola da, arte martzialak bezala, eta teknika da inportanteena. Irabazteko bi modu daude, aurkariaren bizkarra lurrean jartzea edo zure aurkariak baino 10 puntu gehiago izatea. Puntuak tekniken bidez lortu ahal dira, eta zailtasunaren arabera puntu gehiago edo gutxiago balio dute.

Zelai batean jokutzen da, tapiz bat bezalakoa dena, karratu formakoa, barruan zirkulo bat duena, kategoria guztietarako berdina. Jokalariak zirkuluaren barruan jokatu behar dute, eta jokalaria batek bestea zirkulutik ateratzea lortzen badu, irabazlea izango da.




Arkade makina, zikloen arteko elkarlana.

Arcade makina XX. mendeko 80 eta 90 hamarkadetan puri-purian egon den bideo-joko enpresa izan zen. Bideo-joko enpresa tipologia dela eta, makina fisikoak Arcade izen generikoa hartu zuen. Garai haietan bideojokoak ez ziren etxeetan disfrutatzen, horretarako propio atonduetako lonja batzuetan baizik, arcade- eta arcade ez ziren makinaz beteriko tokiak, non gazteek sosak xahutzen zituzten makina bate-tik bestera.

Garai hura gomutan genuela, eta Ortazar elkarteko kideek bideo-jokozale-tasunaren mendekotasunaren arriskuaz ohartarazita, Oinarrizko Lanbide Heziketa-ko ikasleok gogo biziz hasi dugu proiektu zirrarragarri bat: Arcade makina bat sortzea.

Iniziatibaren lehen urratsa egurrezko egitura sortzea izan da; prozesuaren hasiera makinaren egitura prototipatzea, alegia. Horretarako, oinarrizko material gisa kartoia erabiltzen hasi ginen, eta, horri esker, diseinua bistaratu ahal izan genuen, harik eta oniritzia eman arte. Garapenean aurrera egin ahala, hasierako egitura hori askoz ere bertsio sendoago bihurtzea lortu genuen, egurrez.





Lehen prototipo honen emaitza harrigarria izan da eta proiektuaren potentziala agerian utzi du.


Esan bezala, elkarlanaren emaitza izan da makina. Ondorengo fase batean, Mikroinformatika Sistemak eta Sareak zikloko ikaskideak bideo-jokoak behar zituen gailu informatikoak instalatzeaz arduratu dira; etapa horretan, Arcade makinari bizia emango zioten funtsezko osagaiak instalatzen hasi ziren; besteak beste, bozgorailuak, pantaila, joystick-ak eta botoiak, makinaren funtzionaltasunerako funtsezko elementuak, dedikazio handiz integratu zituztenak.

Hirugarren fasean 3D Animazioak eta Bideo-jokoetako ikasleek hartu dute parte; nola ez, haien lana bideo-jokoa bera egitea izan da.

Bukatzeko, gainazala kontu handiz lixatu eta gero, makina margotu genuen, itxura leun eta profesionala emanez. Urrats horiek guztiak egin ondoren, makina prest egon zen probatzeko.

Bidaia honetan, izandako esperentziaz gain, bideojokoen gehiegizko erabilerari buruzko aholku bat ere eman nahi dizuegu: bideo-jokoekin gozatu, baina neurritz eta tentuz,

ez zaitzala Jokoak zu kontrolatu.



Lemoizko barnetegiko esperientzia

Kaixo, Lemoizko barnetegian lau egunez egon gara eta hau izan da nire esperientzia.

Lehenengo egunean ez nuen espero hor iristean jarduerak egiten hastea eta hori puntu garrantzitsu bat izan da. Nire ustez, jarduera horiek barnetegia ezagutzeko egokiak izan dira zeren eta jolasten arauak eta betebeharrak ikasi ditugu.

Logela egokia zen, ohe guztiak batera egonda garbitasuna errespetatzen zelako, komunekin berdin, nahiz eta komun gutxi egon garbitasuna errespetatu egin da eta nire ustez, txandak errespetatzeko kapa-zak izan gara.

Bigarren egunean, hondartzara joan ginen, Gorlizera hobeto esanda, baina joan baino lehen Gorlizeko pasarte batzuk kontatu zizkiguten modu dibertigarri batean. Ondoren, hondartzara joan ginen ondo pasatzera eta asko dibertitu ginen.

Hirugarren egunean, eskalatzera joan ginen, errutinatik aldentzeko aktibitate dibertigarria izan zen, nire ustez. Ariketa fisikoa egiteko ere erabilgarria izan zen.



Gauean diskofesta eduki genuen eta dantza asko egin genuen.

Azken egunean, ez ginen barnetegitik atera, baina hainbat jolas egin genituen, azkenengo bat enpatia garatzeko izan zen pertsona bat tatamiaren erdian (koltxone-ta bat) ipintzen zen eta besteok belarrira gauza politak esan behar genizkion. Orokorrean esperientzia aberasgarria izan da eta errutinatik aldentzeko egokia.

Ni berriro joango nintzateke asko gustatu zaidalako. Agur!

Rayan Krida



Egun on, Lemoizko barnetegian egon gara ni eta nire klasekideak lau egunez eta hau izan da nire esperientzia:

Astlehenean, monitorea ezagutu genituen eta joko bat egin genuen: pistekin arauak bilatu. Horren ondoren, beste jolas batzuk egin genituen aulkiekin, dibertigarriak izan zirenak. Hurrengoan izan zen logelak ezagutzea eta nahi genuen ohean gure gauzak uztea, oso interesgarria zen egurrezkoak zirelako.

Alderik txarrena izan zen ezin ginela logeletara joan goizeko zortzietatik arratsaldeko bostetara baina oso ondo garbituta zeuden. Komunak ere garbi-garbi zeuden eta lan egiten zuten neskak eta mutilak errespetuz tratatu gintuzten. Hiru aldiz egunean jaten genuen eta hamaiketako bat ematen ziguten hamaiketan eta bokadillo bat ordu bietan edo hiruretan.

Ez dut xehetasunik emango baina asteartean hondartzara joan ginen oinez, emozioan-tea zen denok elkarrekin joan ginelako eta gehienak uretan sartu ziren.

Asteazkenean, eskalatzera joan ginen. Beldurtu egin nintzen, eta uste dut gehienak ere, baina hori zen zirraragarriena.

Ostegunean ez ginen irteera batera joan, baina jolasak egin genituen. Barre asko egin nuen, askotan besteek galtzen zutelako.

Egia esanda, barre asko egin nuen, nahiz eta monitoreek guk baino gehiago euskaraz egin. Errespetuz tratatu gintuzten eta pazientzia asko zeukaten.

Eskerrik asko!

Mihaela Dobrescu



Zein euskal *musika* talde duzu gustukoan?



Aiala Atxa

ETS nire euskal musika talderik gustukoena, eta "Abuela maitea" abestia gustuko dut.

Ez naiz inoiz ETSren kontzertu batera joan, baina martxoan ETSren azken kontzertura joango naiz. Horrez gain, Huntza taldea ere oso gogoko du.



Irune Madina

Nire abestirik gustukoena "Aukera Berriak" da, ETS-rena.

Orain dela gutxi hasi naiz talde hau entzuten, baina nire euskal talderik gogokoena bihurtu da. Bulego taldea ere oso gustuko dut.



Markel Arteta

Nire euskal talde gogokoena ETS da, baina Gatibu ere oso gustuko dut.

Ez naiz inoiz kontzertu batean izan eta ez dut uste joango naizekin. Askok kostatu zait ETSren kanta bat aukeratzea, baina azkenean "Zurekin Batera" hautatuko dut.



Daniela Villa

Nire euskal musika talderik gustukoena Bulego da. Ez naiz oraindik kontzertu batean egon eta ez dut pentsatuta joatea.

Nire talde gogokoena- ren abestirik gustukoena "Bueltan da" den arren, ETSren "Abuela maitea" ere oso gustuko dut.



Iker Doval

Nire talde gogokoena Huntza da, Gatiburen arretik.

Nahiz eta ez naizen euren kontzertu batera joan, irrikaz nago joateko, baina taldea banandu egingo da. Nire abesti gogokoena Huntzaren "Aldapan gora" da, umetatik entzun dut.



Aner de la Torre

Txikitatik Huntza taldea entzun dut. Zoritzarrez, ez naiz inoiz bere kontzertu batera joan, nire talderik gogokoena izan arren.

Gezien entzun dudana abestia eta gustukoena "Lasai, Lasai" da. Bulego taldea ere entzuten dut.

Gure nagusien bakardade ikusezina

Gaur egungo gizartean, hiritarrok arazo handi baten aurrean gaude. Isolatutako adinekoen zifra altua bada ere, ez dugu kontuan hartzen eta ez diogu egoerari aurre egiten.

Bakardadea mehatxu iraunkorra da pertsona helduen bizitzan.. Espainian soilik, 3 milioi kasu inguru daude. Auzi horren eragileak honako hauek izan daitezke: alde batetik, kanpo-faktore baten emaitza izan daiteke, hala nola erretiroa. Lana uzteko garaia heltzean, pertsona ugari isolatuta sentitzen dira. Haien lan egiteko gaitasuna aproposa bada ere, lana utzi behar dute eta zeregin handi hori galtzean, hutsunea sentitzen dute. Beste aldetik, barne-faktoreei dagokienez, alargun geratzearen edota ki-deak galtzearen emaitza gisa, bakardadea aitona-amonon etxeetan sartzen da. Aipatutako bigarren kausa ohikoena da mundu-mailan.

Adindunen egoera horrek hainbat ondorio kaltegarri ditu, batez ere, osasunaren alorrean. Bakardadea nagusiek pairatzen dituzten gaixotasun psikologiko askoren erruduna da, hala nola: depresioa, alzheimerra eta demenziaren eragilea. Gainera, fisikoari dagokionez, hainbat gaixotasun sortu ditzake, besteak beste, diabetesa eta desnutrizioa.

Bakantasan hori urteko sasoi batzuetan gehiago nabaritzen da, esate baterako, Gabonetan. Bistan da familiarekin biltzeko garai aproposena dela, baina ezin ditugu burutik kendu istorio honetako protagonistak: adinekoak. Empatía pixka bat izanez gero, erraza da haien egoerari buruzko hausnarketa egitea. Halaber, ezinezkoa da sentitzen dutena guztiz bistaritzea. Azken finean, bakardadearen auzia ez dago ikusgai, sentitzen den egoera baita..

Hala eta guztiz ere, bizitzako gauza gehienak bezala, egoera honek konponbidea du. Gizarte moduan hainbat aldaketa egin daitezke nagusiak entretenitzeko: esate baterako, jubilatutako ondoren lan lasai bat ematea. Kasu batzuetan, erretiratutakoak lan egiteko prest eta osasuntsu daude; beraz, haien lanarekin lotutako lanpostu motelago bat har dezakete bakartasunaren hutsunea betetzeko, beti



ere haiek nahi duten bitartean. Horiek horrela, haien bizitza alaiagoa izango litzateke eta guk haien jakinduriari etekina aterako genioke.

Horretaz aparte, konponbide errazagoak aurki ditzakegu. Gure inguruko nagusiekin probetxuzko denbora igarotzea bezain erraza da. Irtenbide honekin jarraituz, agureei laguntza emateko erakunde bat dago: adoptaunabuelo.org. Talde horren helburua bakarrik bizi edo sentitzen diren adinekoak poztea da. Hainbat adituk osatzen dute, baina edozein pertsonak lagundu dezake eskutitz bat bidaliz. Webgunean sartu eta egokitutako nagusiari gutuna idaztea da eginkizuna, zerbait kontatuz edota bakarrik ez daudela gogoraraziz.

Laburbilduz, bakardade ikusezin hori ikusteko tarte bat hartzeko beharra dago. Astean behin egindako bisita batek norbaiten bizitza alda dezake.



Nire apustua: ekintzailetza

Hainbatetan, zure benetako pasioa aurkitzea ez da bide zuzena izaten. Unibertsitateko karrera batean sartzen hainbat aldiz saiatu ondoren, nire benetako motibazioa programazioaren mundua zela konturatu nintzen. Bide aldaketa horrek ez zidan bakarrik nire bokazioa aurkitzen lagundu, baizik eta nire bidea hasten ere bai software garatzaile gisa ekintzaile moduan.

Institutu amaitu nuenean, ez nuen argi zer ikasi. Norabide argirik gabe, Ingeniaritza Elektroko matrikulatzea erabaki nuen, soilik nota baxuarekin sartzeko aukera ematen zuelako. Momentu horretan edozein ingeniaritza ondo etorriko zitzaidan.

Bigarren urtea hasi zenean, gauzak zertxobait hobetu ziren noten aldetik, baina zerbait ez zebilen ondo. Ez nengoen egon behar nuen tokian, zerbait falta zitzaidala sentitzen nuen.

Halako batean, aspertuta nengoela, programatzen ikastea erabaki nuen. Hala ere, ez naiz orduak eta orduak tutorialak edo ikastaro amaigabeak ikusten gozatzen duen pertsona horietakoa. Beraz, bi edo hiru bideo ikusi ondoren, ideia bat burura-

tu zitzaidan: freelance plataforma batean iragarki bat jartzea. Niretzat apustu segurua zen. Abantailak argiak ziren:

1. Diru apur bat irabaziko nuen.
2. Esperientziaren bidez ikastera behartuko ninduen.
3. Merkatua benetan zer eskatzen ari zen ikasiko nuen.

Aste bat igaro ondoren, nire lehen bezeroa lortu nuen. Orduan hasi zen nire benetako abentura programazioaren munduan.

Aste gutxiren buruan, programazioa zela benetan pasioa pizten zidan hori konturatu nintzen, eta horretara erabat dedikatu nahi nuen. Hala ere, erabaki zaila hartu behar izan nuen: Ingeniaritza Elektrokoa uztea.

Nire bikotekidea hasieratik nire ondoan egon zen, baina nire familian kolpe gogorra izan zen, batez ere matrikula ordaindu eta aste gutxira erabakia hartu nuelako. Hasierako zalantzak izan arren, denbora-ekin ikusi zuten maite nuena egiten nuela eta emaitza onak lortzen nituela. Gaur egun, oso harro daude nire erabakiarekin.

Ez zen denbora askorik igaro hezkuntza alternatibak bilatzen hasi nintzen arte. Nire lehen aukera Ingeniaritza Informatikoa ikastea izan zen, baina beste karrera bat erdibidean uzteko beldurrak berriz aztertzerara eraman ninduen. Gainera, ahalik eta lasterren lan-munduan sartzeko nahi nuen, eta horregatik, CIFP TXURDINAGA LHII-n Goi Mailako Gradua egitea erabaki nuen, Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapenean (DAM).



Hilabeteak igaro ahala, nire freelance proiektuak tamainaz eta konplexutasunez hazten joan ziren. Hasieran hainbat herrialdetako ikasleei haien lanekin laguntzen hasi nintzen, eta laster softwarea garatzen hasi nintzen nazioarteko enpresentzat. Prozesuen automatizazioan, datu-zientzian eta adimen artifizialaren integrazioan espezializatu naiz.

Graduko lehen hilabeteetan, institutuan UrratsBat izeneko programa bati buruz hitz egin zidaten, autonomo gisa nire ibilbidea formalizatzen lagunduko zidan eta dirulaguntzak eskuratzeko aukera emango zidan programa. Programaren arduradunarekin harremanetan jartzea erabaki nuen, eta institutuaren beste zenbait pertsonarekin batera gaur arte nire bidea gidatzen eta laguntzen jarraitu dute. Ekitaldiak, lehiaketak eta hitzaldiak gomendatu dizkirate, eta horiek funtsezkoak izan dira nire bide profesionalean laguntzeko.

Gaur egun, nire egoera askoz ere egonkorragoa da. Bezeroen oinarri erregularra daukat, eta garrantzi handiko proiektuetan lan egin dut enpresa garrantzitsuentzat. Gaur egun, Toledoko poliziaren hainbat departamentuk erabiltzen dituzten aplikazioak garatzen ari naiz.

Ibilbide hau erabaki zail eta ziurgabetasun unez beteta egon arren, ez nuke ezer aldatuko. Software garapenaren munduak ez dit bakarrik egunero ikasten jarraitzea



ahalbidetzen, baita eragin errealak duten proiektuetan lan egitea ere. Epe luzera, nire helburua hazten jarraitzea da, bai profesionalki, bai pertsonalki, eta garatzaile eta ekintzaile gisa nire karrera bultzatzea etengabe eboluzionatzen ari den sektore batean.

Egilea: Aritz Jober

Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapeneko ikaslea eta ekintzailea



EUSKARAREN EGUNA

Gure ikastetxeetan Euskararen egunean egindako ekintza ezberdinen argazkiak.




La Salle



Rekaldeberri BHI



Ellacuria-Zurbaran



San Inazio BHI



CIFP Txurdinaga LHII



Deustuko Ikastola



Ibarrekolanda BHI



La Salle



Deustuko Ikastola



CIFP Txurdinaga LHII



Ellacuria-Zurbaran



Rekaldeberri BHI

Denbora pasak

Hizki zopa

g	e	r	e	z	i	a	k	w	k
c	s	c	o	p	s	h	u	v	o
a	a	u	u	i	a	p	s	e	k
i	n	l	e	k	g	b	p	i	o
r	d	r	y	u	a	v	w	o	v
a	i	r	r	a	r	i	w	t	e
d	a	i	q	k	r	n	o	h	a
a	g	t	n	t	a	f	l	h	l
m	a	r	r	u	b	i	a	e	a
r	d	a	i	o	l	e	m	a	x

Bila itzazu fruta hauek goiko hizki zopan:

sagarra

meloia

madaria

marrubia

koko

sandia



gereziak

pikuak

kiwi




Irudia osatu




Laberintua

Exit punturaino bide zuzena aurkitu!



Bertsoak

Deustuko Ikastolako DBH 1eko ikasleen bertsoak.




Hiru hilabete ostean
azkenean oporrak
Oporrekin batera
ditugu gabonak
Gabonetako afari
jende mozkortuak
Eskoletara buelta
bai dira gogorrak

Gabonetan elkartzen
gara familiagaz
Momentu hoberena
Orain dago gugaz
Ondo pasatzen dugu
ta denei euskaraz
Guztiak beti gaude
bai pozaren pozaz

Zergaitik Olentzero
Badoa lehenengo
hau da gure galdera
jendeak nahiago
Maridomingik ere
botere gehiago
merezi behar duela
hemen argi dago.

24 gauean
Zelako urduriak
Bihar edukiko ditut
Nire opariak
25 gouzean
Esnatu nau amak
Zuhaitz azpian daude
Sorpresa handiak.



Arangoi Ikastetxe Irratsaioa


Proiektu dibertigarri eta zirrargarria.

Arangoiti Ikastetxean, ostiralero jarduerare berezi batean parte hartzeko aukeratu dugu: gure irratsaioa! Proiektu hau ikasle guztien artean ikasteko eta, batez ere, hobeto ezagutzeko modu dibertigarria da, 5 urteko txikienetatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 6. mailakoetaraino. Saioa ikastetxe barruan eta auzoan entzuten da, eta ostiralero emozio handiz espero dugu.

Irratsaioak hainbat zati ditu, baina guretzat azpimarragarriena astero pertsona desberdin bati egiten diogun elkarrizketa da. Gure ikaskideak eta irakasleak hurbilagotik ezagutzeko aukera ematen digu, eta sinestezina da haiei buruzko gauza berriak aurkitzea. Batzuetan irakasle bat elkarrizketatzen dugu, beste batzuetan lankide bat, eta beti da oso interesgarria!

Irratsaioa antolatzea tokatzen zaigunean, taldeka lan egiten dugu. Lanak banatzen ditugu, eta batzuetan urduri samar egon arren, primeran pasatzen dugu. Programa osoa prestatzeak zerbait handiaren parte sentiarazten gaitu. Denok hunkitzen gaitu mikrofonoa aurrean izateak, nahiz eta hasieran erres-

oiti txeko ioa.



petu pixka bat ematen digun. Baina pixkanaka urduritasuna galtzen goaz, eta azkenean, esperientzia paregabea da.

Elkarrizketaz gain, irratsaio bakoitzean hiru lehiaketa txiki egiten ditugu. Denok parte hartzen dugun jolas dibertigarriak dira. Zirrargarrietako bat “Asmatu gezurra” da, saioan zehar gezur bat kontatzen dugu eta erronka gezurra zein den asmatzea da. Batzuetan benetan zaila da! Beste lehiaketa batzuk ere baditugu, hala nola deskribatzen ari garen pertsonaia edo herrialdea asmatzea. Astero ahalegin handia egiten dugu entzuleek ondo pasa dezaten eta gurekin ikas dezaten.

Laburbilduz, eskola-komunitate gisa batzen gaituen jarduera da gure irratsaioa, eta ikasten, jolastan eta une bereziak partekatzen gozatzeko aukera ematen digu. Hurbilago sentiarazten gaitu eta taldean lan egiten irakasten digu. Ostiraleko, denontzat prestatu duguna entzuteko irrikitan gaude!



SEX-SUA

DBH 4.mailako ikasleek Karlos "Txapel" Aretxabaleta Ormaetxearen Sex-sua liburu-erotikoa irakurri dute.

Bai ikasleen bai gurasoen artean ikusmira eta eztabaida handia sortu duen irakurketa izan da. Agian, polemikoa bezain beharrezkoa. Oraingo honetan, ikasleek euren iritzia partekatzeko booktuber bidezko lantxoak egin dute. Lotsa alde batera utziz, askok euren kazetari sena erakutsi dute, beste batzuek influencer bikainak direla argi utzi dute eta gutxi batzuek euren irudimena mugaraino eraman dute lan bikainak sortuz. Hona hemen ikasle batzuek egindako laburpen moldatua.

Sex-Sua mikroipuinez osatutako liburua da eta gazteon arreta duen gaietako bat du oinarri, sexua. Nik, pertsonalki, istorio luzeak nahiago ditut baina liburu hau irakurtzeko erraza eta entretenigarria da, beraz, eman aukera bat. Booktuberra egiteari dagokionez, nire ustez, lan hau idea ona izan da, ez gaudelako ohituta horrelako lanetara eta berria den oro ona da.


Oier Garrido Cano (4A)

Istorioliburuez osatutako liburua da. Istoriok ez dute loturarik ezta jarraipenik ere, hau da, komunean duten gauza bakarra jorratzen den gaia da: sexua. Gai honi buruz pixka bat ikasteko oso ondo dago, errealitate desberdinak erakusten baititu. Gainera, entretenitzen zara liburuak askotan harritzen zaituelako. Berez, booktuberra egitea dibertigarria iruditu zait, baina bideoa grabatzea nahiko kostatu zitzaidan barre egiten nuelako.

Axular Fuentes Natxiondo (4B)

Liburuak mikro istorioak kontatzen ditu, nahiko interesgarriak eta dibertigarriak, nahiz eta batzuetan gai nahiko arraroak jorratzen dituen, sexuaren hainbat alde erakusten baititu. Sex-Sua liburuan oinarritutako lana nahiko dibertigarria iruditu zait, liburua bera barregarria da, eta bideoa egin artean, akats dezente egin nuen arren, barre asko egin nuen.

Erlantz Leiba González (4C)



LITERATURA TXOKOA

Sex-sua liburuak desira eta harremanen grinak azaleratzen ditu, umorez eta sarkasmoz, giza harremanen kontraesanak erakutsiz eta irakurlea hasieratik erakarrit. Nire ustez, liburua nire adineko nerabeentzat oso ondo dago. Gainera, liburu motza eta irakurtzeko erraza da. Liburuia ikaragarri gustatu zait, nahiz eta batzuetan ulertzeko korapilatsua izan. Hala, booktuberra egitea aukera bikaina irudituz zait. Ez dut inoiz booktuber bat egin eta egitea asko gustatu zait. Ideia polita eta interesgarria da eta nire adineko askorentzat baliogarria izan liteke. .

Naia Triguero Castilla (4A)

SEX-SUA


Imaginatuz zure burua sexu egoera desberdinetan; neska batekin, multil batekin, zure lagunarekin, zure irakaslearekin, ezezagun batekin,... Nola jokatu zenuke egoera horietan?

Niri asko gustatu zait liburua, protagonisten generoarekin jolasten duelako eta istorioetan ezusteko asko dagoelako. Gainera, liburuak erakusten dituen harremanak benetan gertatu ahal dira, baina, normalean, ez dira errealitate horiek ikustarazten. Booktuberraren inguruan esan behar dut asko gustatu zaidala lan mota hau egitea, oso dibertigarria egin baitzait bideoa grabatzea.

Nerea Ruiz Ríos (4C)



BERBA Kakao



Deustuko Ikastolako ikasle batzuk, egiten ari garen proiektuaren proposamen bat egingo dizuegu. Berba Kakao deitzen da, euskara sustatzeko erabiltzen dugu, hila-betero egiten da eta gai baten inguruan hitz egiten dugu. Honez gain, janaria ermaten dugu patio orduan egiten dugulako eta denok gose garelako. Gaiari buruz hitz egiteko, bosteko taldeetan jartzen gara, bertan galdera batzuk erantzun eta tokatzen den gaiari buruz hausnartzen dugu.

Iraileko Berba Kakao euskarari buruz izan zen. Guztira 45 ikasle batu ginen DBHko 1.mailakoak, hori dela eta, bi atsedendalditan egin behar izan genuen. Saioan, honako galderei erantzun behar izan genien, adibidez: zer da guretzako euskara, etorkizunean nola irudikatzen dugu euskara gure herrian, zer egin ikastolan euskara sustatzeko...

Erantzun asko izan genituen baina hauek dira batzuk: "Guretzat euskara txikitatik ikasi dugun hizkuntza da. Euskal Herritik kanpo gure hizkuntza sekretua da, hitz egitean ez gaituztelako ulertzen". Etorkizunean, bestetik, "Euskara erabiltzen ez badugu desagertu egingo da". Azkenik, hirugarren galderari erantzunez, hauek izan ziren gure proposamenak: mahai-jokoak euskaraz egotea, euskal dantzak ikastea, karaokeak egitea, jolasak atsedendalditan, txapelketak sariekin, liburutegia berriro jartzea euskaraz irakurtzeko...

Urriko Berba Kakaoko gaia Gau Beltza edo Arimen Gaua izan zen. Egin genuen lehenengo gauza, sartzen ginen bitartean, janaria hartzea izan zen (patata tortilla, zukuak, urdaiazpiko edota batidoak) eta lau taldetan banatu ginen. Talde bakoitzean galdera bat planteatu ziguten eta galdera horren erantzunari buruz hitz egin





behar izan genuen, gero orri batean idazteko. Denbora tarte bat pasatu ondoren, papera ondoko taldeari eman genion, eta horrela, galderak talde guztietatik pasatu ziren.

Galderak Gau Beltzari buruz zenbat genekien ikusteko erabili genituen (zergatia, mozorroa, helburua...) eta Arimen Gauaren benetako jatorria zein den jakiteko. Ikusi genuen Halloween eta Arimen Gaua gauza desberdinak direla eta Halloween beharrean, Arimen Gaua gehiago ospatu

behar dugula, hemengo ohiturak mantendu eta bultzatzeko.

Azaroko Berba Kakao talde feminista sortzeko erabiliko dugu. Eta horrela, azaroak 25eko eguna prestatuko dugu Ikastolan.

Gaurkoz, bukatu dugu. Espero dugu proiektu hau gustatu izana, asko ikasi izana eta zuen ikastetxean ere euskara sustatzea, guk egindako proiektuarekin edo zuek asmatutako batekin.

Egileak:

Kattalin Rodriguez, Nora Irusta, Kemen Atela, Beñat Iñiguez, Gorka Egurrola (DBH1)

Eñaut Zugadi, Izadi Zuberogoitia, Eneko Raso, Garazi Perez, Izaro Revilla Ruiz, Ane Oviedo, Melania Hernandez (DBH2)



Emaitzak


kiwi!
sandia
madarria

pikuak
koko
meioa

gerezia
marrubia
sagarra


x	a	m	e	l	o	i	a	p	r
a	e	a	i	b	n	r	r	a	m
l	y	l	f	a	t	u	t	g	a
a	y	o	n	r	k	q	i	a	p
e	t	w	i	r	a	r	r	i	a
v	o	w	v	a	n	y	r	p	r
o	i	p	b	g	k	e	l	u	i
k	e	s	p	a	i	n	n	a	a
o	v	n	y	s	p	o	c	s	c
k	w	k	a	i	z	e	r	e	g

gerezia



Exit punturaino bide zuzena aurkitu!

Zaberntza



Iruña osata



EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*

Maiatzaren 15etik 25era